


## KATEA LEGAIA: irisgarritasuna eta euskara elkarren eskutik



Hernanin dagoen [KATEA LEGAIA](#) enpresan urratsak ematen ari dira euskararen erabilera bultzatzeko. Desgaitasunen bat duten pertsonak lan munduan txertatzeko erakundea da Katea Legaia. Desgaitasun larriak dituzten pertsonari zuzenduta, batik bat, eta enplegarritasuna hobetzeko helburuarekin, lanean hasten direnean bideoen bidez egiten diete harrera. Enpresari buruzko informazioa, laneko sistema, lanpostuko eginkizunak...denak tablet baten bidez ikus ditzakete langile hasiberriek euskaraz, gaztelaniaz eta zeinu hizkuntzan (zeinu hizkuntzan ere euskaraz eta gaztelaniaz). Hiru unitate izango dituzte bertan; hasierako harrera, kalitatea eta lan- segurtasuna.

### Aktibo izan nahi?

Andoainen kokatuta dagoen LATZ S. COOP. enpresak 2013ko apirilean sinatu zuen Andoaingo Udalarekin *Baietz gurean!* Egitasmoan sartzeko hitzarmena. Enpresa eta langileen esperientziaren berri emateko, hona hemen [bideo](#) txiki bat:



Lantokietan prestakuntza aldiak euskaraz egiteko [diru- laguntzak](#) emango ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak aurtien lehenengo aldir.

Helburua da lantokietan praktikaldia egiten duten ikasleek euskaraz egiteko aukera areagotzea eta, nolabait, saritzea.

Diru- laguntza hau enpresek eskatu ahal izango dute eta epea apirilaren 30ean bukatuko da.